



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu



MERKARITZA MAHAIA / MESA DE COMERCIO

2020ko uztailaren 16a

GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena
2. Eredu berria aurkezteko bideoa: ForoConsultivo-Getxo-CASTELLANO.mov
3. Ereduaren azalpena PPT Presentación mesas Hosteleria Comercio.pptx / Gehigarria: Suplemento Foro.pdf
 - a. Helburuak eta funtzioak
 - b. Komunikazioa
 - c. Kronograma
4. Proiektuak/ideiak:
 - Stocken merkatua
 - Getxo Moda
 - Gabonetako kanpaina
 - Promozio kanpaina
5. Bestelakoak

BERTARATUTAKOAK:

ALGORTA /ANDRA MARI		
José Luis Antona	Baratze fruta-denda	Ez da bertaratu
Jokin Aresti	Joyería Iñaki	Bertaratu da
Maria Jesus	Elorri burdindegia	Bertaratu da
AREETA		
Itxaso Zelaia	Juan Mari harategia	Bertaratu da
Sara Mata	Colores	Bertaratu da
PORTU ZAHARRA/NEGURI/KIROL PORTUA		
Kimetz Garate	Zurikaldai Neguri	Bertaratu da
ROMO		
Maite Sesumaga	Maiteskulanak	Bertaratu da
Algortako Dendak		
Amaia Sertutxa	HER	Bertaratu da
Getxo Enpresa		
Rosa Ruiz	Lolíssima	Bertaratu da
Romo Bizirik		
Ainhoa Calderón	Aingara	Bertaratu da
Sustapen ekonomikoa		
Sonia Urdiain	Enpresa turistikoak	Bertaratu da



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Mirene Zabalgozcoa

Merkataritza eta
ostalaritza

Bertaratu da

EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Enpresen eta udalaren arteko elkarriketarako eredu berria aurkezteko bideoaren proiektzioa.
3. Udal teknikariek helburuak, funtzioak, komunikazioa eta kronograma aurkeztu dituzte.

3.1.- Helburuak eta funtzioak:

Sektore mahaietan azalduko dira sektoreak berak proposatutako proiektu guztiak, sektorearen interesekoak direnak edo estrategikotzat jotzen direnak. Proiektuak martxan jartzea eta behar bezala gauzatzea zainduko dute kideek eta sektoreko beste batzuek, proiektuak pilotatzeko batzordeetan.

3.2.- Komunikazioa:

Helbide elektronikoak ahalbidetuko dira sektore bakoitzeko proposamenen berri mahaiko eta lantalde teknikoko kide guztiek izan dezaten.

Eta zabalpenerako ekintzak egingo dira, helburutzat izango dutenak mahai berria eta bertako ordezkariak ezagutzera ematea.

3.3.- Kronograma:

Kronograma azaldu da eta beharrezko azalpenak eman dira mahaien proposamenak urteko aurrekontuen onespenerarekin denboran lerrokatzearen garrantzia ulertzeko.

Proiektuak landuta, lehenetsita eta kontraste politikoko mahaietan kontratatuta egon behar dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuetara aurkeztu ahal izateko.

Adierazi da, halaber, aurrekontu bat egongo dela ekitaldi berean proiektuak egin ahal izateko; ekintza txikiak baina esanguratsutzat jotzen direnak eta aukerako edo premiazko proiektuak.

4. Ekitaldi honi gelditzen zaionari dagokionez, eta egoera kontuan hartuta, mahaiari proposatzen diogu guztion artean definitu eta diseinatzea hemendik eta urte bukaerara arte gauzatzeke dauden edo gauzatu ahal izango liratekeen kanpainak.

4.1.- Stocken merkatua: Irailaren 16tik 19ra egiteko udalak hartutako konpromisoa. 2020ko uztailaren 15eko Aginduan aldatu egin ziren osasun egoera berriaren aurrean gorde beharreko prebentzio neurriak. Bada, merkatu hori ez egitea jo da egokitzea. Ekintza berriren bat egiteko aukera eskaini da.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

4.2.- Getxo Moda: Getxo Enpresarekin egindako bileran erabaki zen bezala, guztion artean Getxo Moda birpentsatzea eta beste formatu bat ematea planteatu da.

4.4.- Gabonetako kanpaina: kanpaina birpentsa dezakegu.

Hau da, egoera berri honen aurrean proiektuak errealitate berriko beharrianetara egokitzeko, birplanteatzeko edo birdefinitzeko aukera ematen da.

5.- BESTELAKOAK:

Mahaiaren ekarpenak eta iradokizunak:

5.1.- Gabonetara begira, Mungiak eta Galdakaok martxan jarrita daukaten **merkataritza txartela aztertzea**.

5.2.- **LANBIDE**ko laguntzen deialdia: proposatu da udalak aintzat hartzea lansaio erdiko kontratuak diruz laguntzeko aukera.

5.3.- Udalerriko saltokiak **Googlen posizionatzeko eta digitalizatzeko** kanpaina berrabiatzea.

5.4.- Herrian kontsumitzeari buruzko **sentsibilizazio kanpaina** egitea.

5.5.- **Gainza irekitzea** abenduaren hasierarako.

Jakinarazi da: Jakinarazi da aparkalekuko obrak aurki amaituko direla. Lekuen % 50ek (120 inguru) txandakako erabilera izango dute. Irailean martxan jarriko da kudeaketa sistema ezartzeko prozedura. 2021ean martxan egon daitekeela aurreikusten da.

Halaber, udalerriko beste leku batzuetan kokatutako aparkalekuen **kudeaketa eraginkorragoa** eskatu dute (San Nikolas, Santa Eugenia...). Horiek okupatu barik daude, eta **txandakako erabilera** izanez gero, udalerriko aparkatzeko arazoak murriztu ahal izango dira.

5.6.- X zenbatekoa gainditzen duten erosketen truke **TAOn hobaria** lortzeko aukera.

5.7.- Gune berean ezaugarri berberak dituzten **saltokienirekiera mugatzea**.

5.8.- Udalerrian **itxita dauden lokalen** kopuruari buruzko arduraren adierazi da, eta plazaratu da ea udalerrri mailan zerbait egin daitekeen.

5.9.- **yosoylasarenaseko** sare sozialen ekimena identifikatu/ezagutzeko eskaria.

5.10.- **GetxoBono**: atxikipen gutxi egon direla aipatu da.

Alegatu dute kobrantzak, kasurik onenean, 15 egunekoak direla, eta hori, oraingo egoeran, eutsiezin suertatzen zaiela saltoki batzuei.

Arloak GetxoBono kudeatzeko beste formatu batzuk aztertzeko hartutako konpromisoa aipatu da.

GetxoBonoko **komunikazio kanpaina biziagotzea** proposatu da, eta nabarmentzea ostalaritzako zerbitzuak txertatu direla, berrikuntza gisa, bonuak trukatzeko lekuen artean.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

6.- AKORDIOAK:

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020/07/20.
2. Gabonetako kanpaina, stock merkatua eta Getxo Moda birplanteatzeko proposamenaren bidalketa.	Udal teknikariak	Uztailak 20-24ko astea
3. LANBIDEn deialdian lansaio erdiko kontratuak txertatu izanaren berri ematea	Udal teknikariak	2020/07/17.
4. Gaintzako aparkalekua: irekitzeko datarik egokiena helaraztea eskumena duen arloari.	Udal teknikariak	2020/07/17.
5. TAOren hobaria: dagokion arloari helaraztea	Udal teknikariak	2020/07/17.
6. Mahaia eta bertako kideak ezagutarazteko kanpaina abiatzea	Udal teknikariak	2020/07/20.
7. Stock-en merkatua bertan behera uztearen berri ematea	Udal teknikariak	2020/07/20.
8. Sektoreari buruzko informazio nagusia dakarren txostena prestatzea	Udal teknikariak	2020/07/20.
9. GetxoBono: Baloratzea zein konpromiso har daitekeen udal gisa zabalpena areagotzeko eta GetxoBono kudeatzeko eredu berriak aztertzeko	Udal teknikariak	Uztailak 20-24ko astea Irailetik aurrera
10. Lehia askeko araudia eta negozioen irekierarena bidaltzea	Udal teknikariak	Uztailak 20-24ko astea
11. YOSOYLASARENAS	Udal teknikariak	Uztailak 20-24ko astea